

2020KO UZTAILAREN 15eko AGINDUA **NEURRI BERRIAK**

- Musukoa erabiltzera behartuta gaude edozein lekutan nahiz eta distantzia bermatuta izan.
- Ostalaritzako establezimenduak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak:
 - Musukoarekin egon behar da, salbu zerbait hartzen ari zeran momentua.
 - Gehieneko taldea 10 lagunekoa izango da.
 - Barran kontsumitu ahal izango da, beti ere bezero edo bezero taldeen artean 1,5 m.tako distantzia mantenduz.
 - Mahai edo mahai taldeen artean 1,5 m.tako distantzia mantenduko da.
- Igerilekua:
 - Sarrera eta irteerako momentuan beti musukoarekin eremuan lekua hartu bitartean.
 - Lekua hartu ondoren, 1,5 m.tako distantzia mantenduko da eta horrela ezean momentu guztian musukoarekin egon beharko da.
 - Bainua hartzeko momentua ez da musukorik behar. Dena dela, igerileku ondoan zaintza edo egonean bazaude, musukoa beharrezkoa da.
 - Tabernako kasuan, ostalaritzako baldintza berberak beteko dira.
- Kirola:
 - Ez da musukorik erabili behar, dena dela, beste pertsonekin edo multzo haundiekin bat egiteko arriskua dagoenean erabilpena gomendatzen da.
- Gazte lonja edo antzekoetan elkartzea debekatuta da.
- Ostalaritzako establezimenduak edo antzekoak ez diren espazio publikoetan edo kalean edatea debekatuta dago.
- Gainontzean, 2020ko ekainaren 18ko Osasun Sailburuak onartutako Aginduan ezarritako neurri guztiak indarrean jarraitzen dute.